

## BARTOLOMEREN JAKINTZAREN ITURRIAK

Nahitanahiezko dirudi Fr. Bartolomek bere liburuak idazteko erabili zituen iturriez geure buruari galde egitea. Beraz, egoki dator hark izan zuen heziera gogoratzea, bere burua janzteko egin ohi zuen estudioa eta bere liburuak idatzi zituen Markinako Karmengo Bibliotekan eskura izan zuen materiala gogoratzea. Hauetatik guztietatik geratu da lekukotasunik asko bere liburuetan jartzen dituen aipamen ugarietan, haien bidez bere baieztapenak eta iritziak bermatzen dituelarik.

### **1. Ikasketa ofizialak: filosofia eta teologia.**

Haren bizitzako uneak aztertzerakoan ikusi dugu nola egin zituen ikasketak bederatzi urtez karmeldarren ikastetxeetan: Logroñon (1790-1793), Iruñean (1793-1796) eta Burgosen (1796-1799) filosofia, teologia eskolastikoa eta moralak, zuzenbide kanonikoa eta eskritura santua. Bederatzi urte luze. Eta urte horietan prestatuko zen bere apostolu eta espiritu jarduerarako, Ordenako Konstituzioek agintzen dutenez, berariaz agintzen baitute zein autoreren gidaritzapean ikasi behar zen diziplina bakoitza.

Ikasketetako bederatzi urteetan, hau da, filosofia eta teologiako hiru ikastetxeetan beti gidaritzat zuten autorea S. Tomas Akinokoa zen. S. Tomasi jarraitzen zitzaion filosofian (berezi)

"Physica", "Logica", eta "Metaphysica"n), teologia eskolastikoa (bereziki haren "Summa" ikasi ohi zen) eta eskritura santuan, eta teologia moralean... Haren garrantzia egundokoa zen... Horrela, Karmeldarrak, filosofo eta teologo handiak beraien artean zituztela, tomismoaren eskolarik ospetsuenetarikoa izatea lortu zuten, *Complutense* eta *Salmanticense* deituriko obra handiak argitaratu ondoren batez ere.

Urte hauetan eskritura santuan eta patristikan hartzen zuten heziera ere sakona zen, haren aipamen ugarietan antzeman daitekeenez. Horrez gain, ez dakigu ikasle zela edo gero bere kasa egindako estudioari esker, (ziur aski azkenengo hau izango da), baina autore zahar eta berrien ezagutza du, baita garai-kideena ere, eta sarri samar aipatzen ditu.

Baina esan dugunez, haren hezieran S.Tomas zen gorengo maisua; heziera honek bazituen beste oinarri batzuk ere; hauek Eskritura Santua eta Eliz Gurasoak ziren.

Dena dela, teologiako ikasketetan, Konstituzioek<sup>1</sup> diotenez beste autore batzuk ere aintzat hartzen ziren, baina hala ere Frai Bartolomek ez ditu bere liburuetan egundo ere aipatzen; esaterako, Frai Luis Granadakoa, Melchor Cano, Diego San Antonioren eta b.

## 2. Markinako biblioteka, eta estudio pertsonala...

Lehenago adierazi dugu Bartolomek berak dioena Markinako Karmengo bibliotekari buruz bera han bizi izatera joan zenean, hau da, Karmeldarren Nafarroako San Joakin Probintziako aberatsenatarikoa zela. Alabaina, urte gutxi batzuk geroago, 1809.ean frantsesetan ia gutzia galdu zen<sup>2</sup>. Markinako bibliotekan teologiako material ugari zuen kontsultak egin eta estudiatzeko. Badakigu Joan Jose Mogel, 1804 inguruan, Karmengo bibliotekara etorri ohi zela ere, Frai

<sup>1</sup> *Constitutiones...*, 129-131. or

<sup>2</sup> MKA, A-I-70: *Apuntaciones...*23. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 762.or. )

Bartolomeren gidaritzapean zenbait gai estudiatzeko. Ziur aski frantsestea orduko, biblioteka 1809.ean suntsitu orduko, Frai Bartolomek idatziak izango zituen bere lau euskal liburu ezagunak, urte batzuk geroago argitaratu bazituen ere. Jakin ere ziur dakigu 1807.erako idatziak zituela *Icasiquizunac* saileko lehen liburukia eta *Eucal-errijetaco*...

Egia da Frai Bartolomek biblioteka ona zuela bere estudio pertsonalerako eta bere liburuak idazteko. Gaur egun ere gordetzen dira hark sarri-sarri aipatzen dituen liburuetariko batzuk, hein batean, Frai Bartolome beraren esku-hartzeaz, azken orduan Eliz Guraso Santuenak eta beste liburu asko isilpean atera ahal izan zirelako<sup>3</sup>.

Frai Bartolome baliatu zen iturriei dagokienez, interesgarria da biblioteka aberasteko hark izan zuen arretaz ohartzea. Gaur egun Markinako Karmengo bibliotekan 157 liburu-edo daude Frai Bartolomeren esaldi autograforen bat dutenak, "es de la libreria del Carmen de Marquina" edo antzeko zerbait jartzen duelarik. Eta 60 kasu baino gehiagotan, bera priore zela, hau da, 1819.ean erositako liburuetan esaldi hau edo antzekoa idazten du bere eskuz: "Se compro p<sup>a</sup> la libreria del Carmen de Marquina, 1819".

Ia gai guztiek erakartzen zuten; aipaturiko bi oharretariko bat aurkituko dugu honako gai nagusietako liburuetan: Eskritura Santu, Dogmatika, Moral, Zuzenbide Zibil eta Kanoniko, Hagiografia, Sermoigintza eta Kateketika, Zientziak, Literatura, Historia, Elizaren historia, Autore Karmeldarrak, Espiritualitatea eta **Euskal historia** gaietako liburuetan.

### 3. Haren lanetan agertzen diren autoreak, aipamenak...

Haren liburuetan ageri diren aipamen ugarietara erreparatzen badiegu, Frai Bartolomek benetan eskola handia, jakintza zabala zuela ateratzen dugu. Autore ugari darabiltza, antzinako

<sup>3</sup> MKA, A-1-70: *Apuntaciones...* 18.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan...* Larrea - Zornotza, 1992, 760. or.).

nahiz oraintsuko, eta hori guztia ikaskizun kateketikoetako gaietan hari-harira eta ongi ekarririk...

Baina azpimarragarriak dira haren adimen-prestakuntzaren eta aipameneren zenbait alderdi, erabili zituen iturrien eta gogokoeneren zituen haren kultura filosofiko-teologikoaren lekuko baitira...: Eskritura Santua, Eliz Gurasoak, Elizaren irakaskuntza kontzilioen eta Aita santuen doktrinaren arabera, eta antzinako eta oraintsuko autoreak...

a) **Bibliako iturriak.**

Kristau-doktrinaren irakasle edo teologo batentzat ezinbestekoa da Biblia errotik ezagutzea; eta Frai Bartolomek Biblia ongi ezagutu eta bere gaietan altxor hori erabiltzen badakiela erakusten du. Bibliako aipamenik gehienak *Icasiquizumac* sailko liburukietan datozenak dira.

Haren Bibliaren ezagutza orokorra da, beraren testuetan ia Bibliako liburu guztietako aipamenak ageri baitira: Itun Zaharreko 35 liburutako aipamenak daude, eta Itun Berriko 20 liburutakoak.

Frai Bartolomereren idazlanetan gehien aipatzen den liburua *Eclesiastes* edo *Kobelet* da; 30 aldiz ageri da; Esaera Zaharrak erditzen liburua 24 aldiz, Irteera 20 aldiz, eta gainerako liburua gutxiagotan: Salmoak (18 aldiz), Deuteronomioa (14 aldiz), Jeremias (10 aldiz), Hasiara (9 aldiz), Tobit (9 aldiz), etab. Guztitara Itun Zaharraren 212 aipamen ageri dira.

Itun Berrian ebanjelioetatik aipatuena San Mateorena da, 51 aldiz dator; San Joanen ebanjelioa 23 aldiz, San Lukasena 9 aldiz eta San Markos 6 aldiz; Santiagoren gutuna 8 aldiz. Baina guztietarik aipatuena San Paulo da; honen gutunetatik 75 aipamen aurkitzen ditugu... Guztitara 181 aipamen ditugu Itun Berriak.

Frai Bartolomek erabilitako Bibliako argitalpenei eta hark ezagutzen zituen Eskritura Santuko estudioei dagokienez, berak egiten dituen adierazpen txiki batzuek at, ez dugu ziurtasunik; baina oraindik Markinako Karmengo bibliotekan dagoena

kontuan izanik, gutxi gorabehera atera genezake komentuan hark eskueran izan zezakeena... Honela, adibidez, hark eskueran izan zitzakeen bibliotatik, "Biblia Sacra Vulgatae editionis" delakoaren hainbat argitalpen izango zirela uste izatekoa da (Anverpiae 1715, 1716; Lugduni 1604, 1609, 1692, 1727; Parisiis 1702, 1731; Venetiis 1740, 1765, 1741; Matrivi 1799; hainbat argitalpen izan dituen Phelipe Scio de San Miguel-en gaztelaniazko itzulpena, esaterako, zazpi liburukitan, Valentzia 1791-1793; edo *Epistolae de San Pablo*, Frantzisko Ximenez-ek gaztelaniara itzuliak, etab.). Eta Bibliako iruzkinen artean, besteak beste, Augustinus Calmet-en iruzkin ezagunak dira Markinako Karmeldarren bibliotekan (8 liburuki, 1755-1760), Joannes da Sylveira (1697-1701), Cornelius a Lapide, Joannes Maldonatus, etab. eta bereziki Benedictus Pererius Valentinus-ek Danielez egindako iruzkinak, liburu honetan idatzi baitzuen Frai Bartolomek ohar hau: "Carmen de Marquina", eta Jacobus Tirinus-en iruzkinak (Ludguni, 1723) eta Joannes Lorinus-enak (Venetiis, 1737), hauetan idatzi baitzuen ondorengo oharra: "Se compro p<sup>a</sup> la libreria del Carmen de Marquina en 1819", etab. Aipatzekoa da Markinako Karmengo bibliotekako libururik zaharrenetarikoa gai biblikoa duena dela (ANTHONIUS A KONYGSTEYN, *Concordantiae breviores omnium ferme materiarum ex sacris bibliorum libris...* Coloniae, 1533) eta honek ere Bartolomearen ohar ezagun hau darama: "Carmen de Marquina"

#### b) **Eliz Gurasoen iturriak.**

Arestian ikusi dugunez, hain zuzen ere Frai Bartolomek bere ikasketak hasi zituenean, Karmeldar Teresiarren Ordenak bere filosofia eta teologiako ikasketen araudia berriro egin zuen, Eskritura Santuaren ikasketa, teologia eskolastikoarekin<sup>4</sup> bate-

<sup>4</sup> *Instrucción de los colegios de Carmelitas Descalzas formada y presentada en su capítulo general celebrado en el convento de San Hermenegildo de Madrid a 25 de Septiembre de 1790. Por N. M.R.P. Fr. Andrés de la Ascensión. Aprobada por su Difinitorio General de Comisión de dicho Capítulo, Madrid, 1790, 45-50. or.*

ra, goren mailan ezarria izan zelarik; Eskritura Santua, Tradizioa, Kontzilio eta Eliz Gurasoak ongi ezagutzea behar-beharrezkoa zen.

Konstituzioetan Eliz Gurasoen<sup>5</sup> doktrinaren berri jakitea ere agintzen zen; eta, egia esan, Eliz Gurasoen estudio honek azarna bizia utzi zuen Frai Bartolomerengan; esaterako, erabili zituen gaietan, 15 bat Eliz Guraso aipatzen ditu, guztitara 101 aipamen... (Batzuetan zuzenki aipatzen ditu, eta beste batzuetan beste autore batzuen bidez...). Gogoan izatekoa da gaur egun Markinako Karmengo bibliotekan gordetzen diren XVI. mendeko Eliz Gurasoen liburu handiak, hain zuzen ere, Frai Bartolomek salbatu zituela frantsesteak eragin zuen hondamenditik.

San Agustin da guztietarik nagusi, gutxi gorabehera 34 aldiz aipatzen duelarik; San Joan Krisostomo 24 aldiz aipatzen du; gainerakoak gutxiago agertzen dira, esaterako, San Jeronimo (9), San Ambrosio (8), San Basilio (7), San Gregorio (6), San Zipriano (5), etab.

Frai Bartolomek frantsestean hondamenditik salbatu zituela Eliz Gurasoen liburu batzuk adierazi dugu lehenxeago. Horrela gaur egun Markinako Karmengo bibliotekan gordetzen dira XVI. mendeko Eliz Gurasoen liburu handi eta dotoreak: San Zipriano, San Agustin, San Jeronimo, San Joan Krisostomo, San Basilio, San Joan Damazeno, San Gregorio, San Isidro, San Ambrosio, etab. Ezagutze zakeen biblioteka horretan gordetzen den Tricalet jaunaren 10 liburukitako bilduma ere (*Biblioteca portátil de los Padres y Doctores de la Iglesia*, Madrid, 1790-1791).

### c) **Eliz Irakaspenekoak.**

Eliz Irakaspeneko autoritateari dagokionez, bizpahiru autore dira Frai Bartolomek eten gabe aipatzen dituenak.

<sup>5</sup> *Constitutiones...*, 130. or.

Lehenengo eta behin sarri-sarri dakar Erromako Katixima; 40 aldiz aipatzen du...

Markinako Karmeldarretan badira oraindik Bartolomek erabil zitzakeen liburuak: latinezko argitalpen batzuez gain, Bartolome Markinan zen garaian, hots, XVIII. mendearen hasieran, hemen zeuden itzulpenik garrantzitsuenak gordetzen dira: Lorentzo Agustin Manterola-rena (*Catecismo de Trento*), lehen aldiz Iruñean argitaratu zena (1777, 1780, 1786) eta geroago Madrilen (1785, 1797, 1805), eta Agustin Zorita-rena (Valentzia, 1782, 1783, Madril 1786, 1791, 1802, etab.). Markinako Karmeldarretan badira oraindik 1777, 1786, eta 1791.eko argitalpenak, eta halakoren batez balia zitekeen Fray Bartolome.

Haren ondoren, berezko denez, Trentoko Kontzilioa aipatzen du, 29 aldiz, aipatu ere... Markinako Karmeldarretan bada oraindik Bartolomek erabil zezakeen liburua: Ignazio Lopez de Ayala-ren bigarren argitalpena, elebiduna, latinez eta gaztelaniaz (*El sacrosanto y ecuménico concilio de Trento, traducido al idioma castellano*), Madrilen 1785. urtean argitaratua. Badira gainera, ziur aski Frai Bartolomeren garaitik, *Sacrosanctum, oecumenicum concilium tridentinum...* (Madrid, 1762, 1779) obraren bi argitalpen, Johannes Gallemart Augustinus Barbosak eta Cardenal de Luca-k eginak.

Aita Santu Benedikto XIV.aren aipamen batzuk ere ageri dira; 8 aldiz aipatzen du (1740-1758), eta honen liburuak ere gaur egun Markinako Karmengo bibliotekan<sup>6</sup> gordetzen dira...

#### d) **Maite zituen autoreen iturriak.**

Aipatzen dituen XII. mendetik XVIII.era arteko teologo, idazle, santu eta abarren artetik, 60 bat autore, guztien gainetik

<sup>6</sup> Markinako Karmeldarren bibliotekan Benedicto XIV.aren hainbat liburu daude; hauen artean, idazlan guztiak liburuki ugaritan (*Opera omnia, Venetiis, 1767*). Frai Bartolomek ondorengo hau aipatzen du bereziki: *De Synodo Diocesana, Matriti, 1778; Pastoral... e instrucciones eclesiásticas...*, Madrid, 1769.

teologo, filosofo eta eskriturista bikain S. Tomas Akinokoa ageri da batez ere, 42 aldiz aipatzen baitu Frai Bartolomek; beste batzuk gutxi xeago ageri dira, esaterako, San Karlos Borromeo (10 aldiz), Marchant (9 aldiz), Pouget (9), San Bernardo (7), Cornelio a Lapide (7), San Frantzisko Saleskoa (4), etab.

Euskal Herriko autoreetatik hauek aipatzen ditu beren-berengi: Frantzisko Antonio Palacios<sup>7</sup> (*Euscal-errijetaco...*, 93) eta Joan Antonio Mogel (*Euscal-errijetaco...*, 93); dena dela, beste euskal idazle batzuk ere ezagutu zituen, goraxeago adierazi dugunez.

*Julen Urkiza*

<sup>7</sup> Areago oraindik, Markinako Karmeldarren bibliotekan (1-M / 45) Frantzisko Antonio Palacios-en liburua gordetzen da (*Viva Jesús. Respuesta satisfactoria del Colegio de Misioneros... Una disertación sobre lo lícito, ó no de los bailes regulares de las Plazas, y de Saraos...*. Pamplona, 1791), Frai Bartolomereren ohar autografo hau duena: "Del Carmen de marquina"